

Astigaraga

Uste.—Emengo lugiñak urte au guztiz ona dute, babefun eta artoa ngari da; sagara beñiz orain bi urte aña espada ere, asko ta umotubagoa da eta uste denez edari bikiñak ditukegu urte-urtean. Sagarfoketan gogor diardute eta gozo ederekoak dira; azukrea garesti dala bañan aurtengo sagarak nuntaitere oparo idoro dute. Emen ari dira batzuek tximindañez, besteak ukindañez, eta oraindik "brim" "bram" pisoyakin zumoa kentzen direnak ba-dera; itz batean esateko Astigaraga'ko "fábrica" guziak lanean ari dira eta sagardo guziak itxian sartu aitean ez da huelgarik emen, ba esatera da antziñakoa: "Astigaraga'ko sagar jotzaleak elkarren berri ondo zekiñen".

* * *

Aizpuru'tar Mirentzat.—Emengo neska abertzaleak beren artean bilketa bat egin dute Aizpuru'tar Miren'en izenean eta ora nork zenbat eman duan: Zubilaga-Meltxorrek, 1,00; Aldabalde-Josebandonek, 1,00; Aranburu-Gabirelek, 0,50; Aranburu-Jasonak, 0,50; Aldabalde-Adelaidek, 0,50; Aldabalde-Mirenak, 0,25; Yafza-Pilomenek, 1,00; Añuabafena-Jonek eta Josebek, 1,00; Añuabafena-Jonek, 0,50; Agife-Jonek, 0,75; Agife-Elixabetek, 0,75; Guruteaga-Eskafuelek, 0,50; Aldabalde-Catasnek, 1,00; Isasa-Anek eta Margaritek, 1,00; Isasa-Baldomerek, 1,00; Ubetagoyena-Gergorek, 1,00; Goikoetxeak-Mirenak, 1,00; Almandoz-Ebaristek eta Meliñonek, 1,00; Irizar-Nekane, 1,50; Ayestaran-Jonek, 1,00; Añieta-Pantzezkek, Erósek, Pilomenek, ta Pilarek, 1,00; Dorosti-Justiñek, 1,00; Añetxe-Mirenak, 0,25; guztitara: 19,00. Bejondiaizutela.

* * *

Ageri ez.—"Zofñia" abizenaz zert cubat igori aitan bañan ez da ageri; saskiratua edo. (1)

TXADON-ZAYA.

(1) Ez ba; nik ezte ikusi zure lan ori, bestela pozik argitalduko neban. Biali ezadazu beñiro.—*Kirikiño.*